

MAIZ EGINDAKO GALDERAK

- **Portatilek segururik al dute?**

Ez. Nahi izatekotan, norberak kontratatu beharreko zerbitzua da hori. Etxeko seguruan sartzen saiatu edo Interneten topatu ahal diren aukerak azertu. Eusko Jaurlaritzak ez digu inongo babesik eman zentzu honetan.


Mantenu barruan dauden konponketa guztiak doan dira noski, baina erabilera okerragatik apurturikoak familiak ordaindu beharko ditu; [Ebazpenak](#) dion bezala. Hauek dira konponketa prezioak gutxi gorabehera, BEZa gabe.

Rotura de teclado (cambio)	53,00
Rotura de pantalla Full HD (Solo pantalla)	125,00
Rotura de Pantalla + Cover Lcd y Bezel (barebone)	155,00
Cambio chasis completo (Cover Lcd, Bezel, Lower y Teclado)	94,00
Cambio touchpad (touchpad + cable)	42,00
Rotura de Cover LCD + Bezel	63,00

- **Kargagailua galdu badut zer?**

Azkenengo komunikatu batean, portatil hauekin funtzionatzen duen edozein kargagailu onartuko digitela adierazi ziguten. Beraz, galtzekotan, ez da zertan ofiziala (35€) erosi behar, Interneten 20€tan topa ahal dira erraz.

Kontuan izan konexio atakaren neurriak, tentsio eta anpere-maila:



Portatila hau da: *TravelMate P2 TMP214-53-36S0*

- **Sagua apurtu zait, beste bat erosi behar dut?**

Arratoiekin ez larritu, oso kalitate baxukoak dira eta erraz apurtzen dira. Hori bai, apurtuta egonda ere ez bota, gorde portatila itzuli behar den garairako. Edozein sagu onartzen dute itzulera garaian.

- **Portatilaren azpiko torlojuren bat falta bazait zer egin behar dut?**

Ikastetxean abisatu, ez saiatu beste torlojurik jartzen. Antzeko torloju bat jarri izanaren adibideak izan ditugu eta gaizki atera dira. Zerbait gertatzekotan aurrekontuarekin konpontzen dute, erabilera okertzat emanez.

Era orokorrean, ez saiatu ezer fisikorik zuen kabuz konpontzen, manipulaziorik ikustekotan teknikariek erabilera okertzat eman ohi dute.

- **Ez nago ados bidalitako aurrekontuarekin, nola jokatuko dut?**

Ikastetxeko informatika arduradunarekin hitz egin lehenengo, behar izatekotan idazki bat prestatu eta erreklamazioa bidaliko zaio dagokion departamentuari. Erabilera okerragatik egindako konponketak ordaintzen ez badira, ikaslea Renting zerbitzutik kanpo geratuko da eta ez du eramangarri berririk jasoko hurrengo urteetan.

- **Nola ireki ahal da intzidentzia bat edozein arazo izan ezkerro portatilarekin?**

Helbide honetan: labur.eus/DyinA

Behin intzidentziaren berri eman dela, ikastetxeko arduraduna joango da portatilaren bila. Izan prest zorroa eta kargagailua, batzuetan teknikariek kanpora eraman behar dute konponketa egitera eta.

Pasahitza edo posta helbideekin dauden arazoetarako ez da beharrezkoa zorroa eta kargagailua ekartzea noski.